



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETXEHARITZA
POLITIKA SABA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EAEko kultura programazioaren azterketa

2023ko bigarren hiruhilekoa





Aurkibidea

0. AURKEZPENA	3
1. FITXA TEKNIKOA	4-6
Azterketa unibertsoa	5
Ohar metodologikoak	6
2. EKITALDIEN AZTERKETA	7-9
Datuen laburpena	8
Ekitaldien banaketa, motaren arabera	9
3. KONTZERTUAK	10-14
Ekitaldiak, sarreren prezioa eta espazioa	11
Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera	12
Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera	13
Kontzertuen banaketa, musika generoaren arabera	14
4. ANTZERKIA	15-20
Ekitaldiak, emanaldiak eta sarreren prezioa	16
Antzerki emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	17
Antzerki emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera	18
Antzerki emanaldien banaketa, antzerki generoaren arabera	19
Antzerki emanaldien banaketa, espazioaren eta publikoaren arabera	20
5. DANTZA	21-24
Ekitaldiak, emanaldiak eta sarreren prezioa	22
Dantza emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	23
Dantza emanaldien banaketa, dantza generoaren arabera	24
6. BERTSOLARITZA	25-26
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	26
7. ERAKUSKETAK	27-28
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	28



0- Aurkezpena

2023ko apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean programatutako kultura ekintzen azterketa

2023ko apirilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko kultura programazioaren egoeraren berri ematen du txosten honek.

Bi ataletan banatuta dago azterketa. Batetik, kultura programazioaren egoera erakusten da bere osotasunean, ekitaldi moten arabera eta 2022ko epealdi bereko datuekin alderatuta. Bestetik, bost kultura esparru zehatzen kultura programazioaren errealitatean sakontzen da: **Musika**, **Antzerkia**, **Dantza**, **Bertsolaritza** eta **Erakusketak**.





1. Fitxa teknikoa

Azterketa honetarako erabilitako
unibertsoa



AZTERKETA UNIBERTSOA

INFORMAZIO ITURRIA	Kulturklik (www.kulturklik.euskadi.eus)
AZTERTUTAKO UNIBERTSOA	4.847 ekitaldi Unibertso osoa, ez lagin bat
JASOTAKO EKITALDI MOTAK	13 ekitaldi mota Kontzertuak, antzerkia, erakusketak, dantza, jaiak, hitzaldiak, bertsolaritza, azokak, ikus-entzunezko emanaldiak, ikastaroak/tailerrak, lehiaketak, jaialdiak, bestelakoak
AZTERTUTAKO EPEALDIA	2023ko apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean antolatutako ekialdiak
AZTERTUTAKO LURRALDEAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
DATUEN AZTERKETA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOA	Kualitate Lantaldea (Kulturklik taldea)



OHAR METODOLOGIKOAK

ERAKUSKETAK

- **Aztertutako erakusketak erreferentziazko epealdian** (2023ko bigarren hiruhilekoa) **inauguratutakoak dira**, haien amaiera data edozein dela ere. Aldiz, **ez dira kontuan izan** apirila eta ekaina bitartean jendearentzat irekita zeuden arren **2023ko apirilaren 1a baino lehen inauguratu ziren erakusketak**.

IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDIAK

- **Kulturklien ez dira jasotzen** EAEko zinema areto guztietako **film komertzialen emanaldiak**. Honako hauek baino ez dira argitaratzen Kulturklikeko agendan: euskal filmen emanaldiak EZAEn zinema areoetan, euskarazko filmen emanaldiak (Zinema Euskaraz) eta programa bereziak (zinema zikloak, zineforumak eta/edo zineklubak, esaterako).

PREZIOAREN ALDAGAIA

- **Kontzertuen eta antzerki eta dantza emanaldien prezioa soilik hartu da kontuan**. Ez da aztertu bertsolaritza ekitaldien eta erakusketen prezioa, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, doako ekitaldiak izaten dira kasu askotan (aire zabaleko bertso saioak eta kultur etxeetako edo udal espazioetako erakusketak doan izaten dira ia beti); bestetik, bi ekitaldi mota horietan, ordainpeko sarrerek ekitalditik haragoko beste jarduera batzuk ere barne hartzen dituzte maiz (adibidez, bertso afari edo bazkarietako sarrerek barne hartzen dituzte afaria edo bazkaria, eta museoetako sarrerek zentro jakin horren erakusketa eskaintza osoa bisitatzeko aukera ematen dute, erakusketa bakarrera mugatu orde). Aztertutako unibertsoari dagokionez, **batez besteko prezioa kalkulatzeko**, ordainpeko kontzertuak eta dantza eta antzerki ikuskizunak baizik ez dira izan dira kontuan, hots, **kanpoan utzi dira doako ekitaldiak**.

EMANALDIEN ARABERAKO AZTERKETA

- Estatistika helburuekin, formatu txikiko antzezlanak programatutako egunen arabera zenbatu dira, eta ez egindako emanaldien arabera.

BI ALDAGAI BERRI: HAURRENTZAKO JARDUERAK ETA ESPAZIOA (BARRUAN/KANPOAN)

- Txosten honek azterketarako bi aldagai berri jasotzen ditu: batetik, **kanpoko esparru eta espazioetan egin diren kultura jardueren ehunekoa (antzerkia, dantza eta kontzertuak)**; eta bestetik, **hurrei zuzendutako antzerki emanaldien ehunekoa** (haurrentzako, familientzako eta publiko guztientzako emanaldiak barne).

2. Ekitaldien azterketa

EAEko kultura jardueraren laburpena:
2023ko apirilak 1-ekainak 30



DATUEN LABURPENA

Kulturklikeko agendan jasotako datuen arabera, 4.847 kultura ekitaldi egin dira EAEn apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean.

4.847 ekitaldi

2023ko bigarren hiruhilekoan


4.559 ekitaldi

2022ko bigarren hiruhilekoan

+% 6

EKITALDIEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA

1. grafikoa: Ekitaldien banaketa, motaren arabera



*Jaiak, Lehiaketak, Ikastaroak/Tailerrak, Jaialdiak eta Azokak



3. Kontzertuak

2023ko bigarren hiruhilekoan EAEn
izandako kontzertuen azterketa





KONTZERTUAK: EKITALDIAK, SARREREN PREZIOA ETA ESPAZIOA

1.487
kontzertu

2023ko bigarren hiruhilekoan, EAEn izan diren 1.487 kontzertu jaso dira Kulturkliken, eta horien % 27n talde batek baino gehiagok parte hartu du.

Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 13,9 eurokoa izan da.

Azkenik, nabarmendu behar da musika emanaldien % 23 kanpoko espazioetan izan direla.

Sarreraren
batez besteko prezioa


13,9€

Kontzertuak
kanpoaldean

% 23

KONTZERTUEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

2. grafikoa: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



1. taula: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko
ARABA	59
BIZKAIA	64
GIPUZKOA	79

Kulturklien jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien **ia erdiak (% 48,9) Bizkaian** izan dira, % 38,1 Gipuzkoan eta % 13 Araban.

Hala ere, kontzertuen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulatuta, **Gipuzkoa da kontzertu gehien programatu duen lurraldea**: 79 ekitaldi 100.000 biztanleko.

KONTZERTUEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

2. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	KONTZERTUAK %
EUSKARA	27,7
GAZTELANIA	20,0
HIZKUNTZA GABE	17,7
INGELESA	14,1
HAINBAT HIZKUNTZA*	12,3
BESTE BATZUK	1,1
EZEZAGUNA	7,1

* Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan ematen dituzten kontzertuak dira gehienbat

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, **euskara izan da hizkuntza erabiliena** 2023ko bigarren hiruhilekoan EAEn egindako **musika emanaldietan**: kontzertuen % 27,7 euskaraz izan dira. **Gaztelania** izan da bigarren hizkuntza erabiliena (% 20,0).

Hizkuntza gabeko musika ekitaldiak (musika klasikoa, talde instrumentalak...) kontzertu guztien % 17,7 izan dira. **Ingelesez** egin diren kontzertuak (% 14,1) eta **barnean hainbat hizkuntza hartu dituztenak** (% 12,3) baino gehiago, beraz.

KONTZERTUEN BANAKETA, MUSIKA GENEROAREN ARABERA

3. taula: Kontzertuen banaketa, musika generoaren arabera (%)

	KONTZERTUAK %
MUSIKA GARAIKIDEA (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusio musika, reggaea...)	75,1
MUSIKA ESPIRITUALA (erlijiosoa, korala, gospela...)	8,1
MUSIKA KLASIKOA	7,3
EUSKAL MUSIKA HERRIKOI ETA TRADIZIONALA	4,8
MUNDUKO MUSIKAK	2,6
BESTE BATZUK	2,2

Musika generoari dagokionez, musika emanaldi gehienak (% 75,1) musika garaikidekoak izan dira.

Musika espiritualekoak kontzertu guztien % 8,1 izan dira, eta musika klasikokoak % 7,3.

Euskal musika herrikoi eta tradizionaleko emanaldiak eta musika klasikokoak kontzertu guztien % 4,8 eta % 2,6 izan dira, hurrenez hurren.



4. Antzerkia

2023ko bigarren hiruhilekoan EAEn
izandako antzerki ekitaldien azterketa





ANTZERKIA: EKITALDIAK, EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

958
ekitaldi

1.224
emanaldi

2023ko bigarren hiruhilekoan, EAEko 958 antzerki ekitaldi jaso dira Kulturkliken, eta horien % 16n emanaldi bat baino gehiago izan da.


Ordainpeko antzerki ekitaldi bakoitzaren batez besteko prezioa 10,3 eurokoa izan da.

Sarreraren batez
besteko prezioa

10,3€

ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

3. grafikoa: Antzerki emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



4. taula: Antzerki emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ANTZERKI EMANALDIAK, 100.000 biztanleko
ARABA	50
BIZKAIA	58
GIPUZKOA	56

Kulturklien jasotako antzerki emanaldien banaketa lurraldearen arabera aztertuta, guztien **erdiak** baino gehiago (**% 53,7**) **Bizkaian** izan dira, % 32,8 Gipuzkoan eta % 13,5 Araban.

Emanaldien banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulatuta, antzekoa izan da Bizkaian (58) eta Gipuzkoan (56), eta pixka bat txikiagoa Araban (50).

ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

5. taula: Antzerki emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	ANTZERKI EMANALDIAK %
GAZTELANIA	44,8
EUSKARA	35,7
HIZKUNTZA GABE	15,7
HAINBAT HIZKUNTZA *	2,7
BESTE BATZUK	1,1

*Aldi berean hizkuntza bat baino gehiago darabilten antzezlanen emanaldiak edo hizkuntza ezberdinetako emanaldiak dituzten antzerki ekitaldiak

Bigarren hiruhilekoan egin diren emanaldien % 44,8 gaztelaniaz izan dira; % 35,7, euskaraz.

Bestalde, emanaldien % 15,7 testu gabeak izan dira; gehienak (% 85) kale antzerki eta zirku ikuskizunak izan dira.

Azkenik, emanaldien % 2,7 hainbat hizkuntzatan izan dira.

ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, ANTZERKI GENEROAREN ARABERA

6. taula: Antzerki emanaldien banaketa, antzerki generoaren arabera (%)

	ANTZERKI EMANALDIAK %
TESTU ANTZERKIA	54,2
ZIRKUA	17,2
KALE ANTZERKIA	10,5
ANTZERKI MUSIKALA	7,7
MAGIA	5,0
BESTE BATZUK	4,3
ANTZERKI LIRIKOA	1,2

Antzerki generoari dagokionez, 2023ko apirila eta ekaina bitartean EAEn egindako **emanaldien % 54,2 testu antzerki motakoak** izan dira.

Kulturklikeko agendan emanaldi kopuru handiena izan duen bigarren antzerki generoa **zirkua** izan da (**% 17,2**).

Beherago geratu dira **kale antzerkia** (**% 10,5**), **antzerki musikala** (**% 7,7**) eta **magia** (**% 5,0**).



ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, ESPAZIOAREN ETA PUBLIKOAREN ARABERA

Emanaldien

% 32

haurrentzat

Emanaldien

% 31

kanpoaldean



5. Dantza

2023ko bigarren hiruhilekoan EAEn
izandako dantza ekitaldien azterketa





DANTZA: EKITALDIAK, EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

286 ekitaldi

2023ko bigarren hiruhilekoan, EAEko 286 dantza ekitaldi jaso dira Kulturklien, eta horien % 15en emanaldi bat baino gehiago izan da.

Ordainpeko dantza ekitaldi bakoitzaren batez besteko prezioa 12,9 eurokoa izan da, eta emanaldien ia erdiak (% 46) kanpoaldean egin dira.

331 emanaldi

Sarreraren
batez besteko prezioa


Emanaldiak
kanpoaldean

12,9€

% 46

DANTZA EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

4. grafikoa: Dantza emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



7. taula: Dantza emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	DANTZA EMANALDIAK, 100.000 biztanleko
ARABA	15
BIZKAIA	14
GIPUZKOA	16

Dantza emanaldi guztien **erdiak (% 49,5) Bizkaian** izan dira, % 35,0 Gipuzkoan eta % 15,4 Araban.

Hala ere, dantza emanaldien banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulatuta, **antzekoa izan da hiru lurraldeetan.**

DANTZA EMANALDIEN BANAKETA, DANTZA GENEROAREN ARABERA

8. taula: Dantza emanaldien banaketa, dantza generoaren arabera (%)

	DANTZA EMANALDIAK %
DANTZA GARAIKIDEA	65,3
DANTZA TRADIZIONALA	23,6
BALLET KLASIKOA	6,0
BESTE BATZUK	5,1

Dantza garaikidea izan da EAEko agertokietan emanaldi gehien izan duen dantza generoa, guztien % 65,3. Dantza tradizionala izan da bigarrena, emanaldien % 23,6rekin.

Azkenik, dantza emanaldien % 6,0 ballet klasikokoak izan dira. % 5,1, aldiz, "beste batzuk" moduan sailkatu dira; aretoko dantzekin, dantza bertikalarekin eta dantza eta beste diziplina batzuk (bertsolaritza edo ikus-entzunezko emanaldiak) uztartzen dituzten ikuskizunekin lotutako ekitaldiak izan dira, batez ere.



6. Bertsolaritza

2023ko bigarren hiruhilekoan EAEn
izandako bertso ekitaldien azterketa




BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

286 bertso saio

2023ko bigarren hiruhilekoan, EAEko 286 bertso saio jaso dira Kulturklikeko agendan.

5. grafikoa: Bertso saioen banaketa, lurraldearen arabera (%)



9. taula: Bertso saioen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	BERTSO SAIOAK, 100.000 biztanleko
ARABA	8
BIZKAIA	10
GIPUZKOA	21

Kulturkliken jasotako bertso saioen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko nabarmen handiagoa da Gipuzkoan (21 ekitaldi 100.000 biztanleko), Araban (8) eta Bizkaian (10) baino.



7. Erakusketak

2023ko bigarren hiruhilekoan EAEn
izandako erakusketen azterketa






ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

376 erakusketa

2023ko apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean, **376 erakusketa** inauguratu dira EAEn.

6. grafikoa: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera (%)



10. taula: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko
ARABA	23
BIZKAIA	17
GIPUZKOA	16

Erakusketen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** antzekoa izan da **Bizkaian eta Gipuzkoan** (17 eta 16, hurrenez hurren). **Araban**, aldiz, **handiagoa** izan da: han 23 erakusketa inauguratu dira 100.000 biztanleko.